

LEHENENGO ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko bost informazio entzunen dituzu.

Zuk ariketa honetan (A-J) esaldiak dituzu eta entzunen duzun informazio bakoitza dagokion esaldiarekin parekatu behar duzu taulan. *0 zenbakia* adibidea da eta lau esaldi sobera daude.

Esaldiak

- A. Botika bat noiz eta zertarako hartu behar den azaltzen du.
- B. Botika baten jatorria eta propietateak azaltzen ditu.
- C. Botika baten ondorio arriskutsuak azaltzen ditu.
- D. Eragingarria izateko, botika bat zein dositan hartu behar den azaltzen du.
- E. Gaixotasun bat ez hartzeko aholkuak ematen ditu.
- F. Gaixotasun bat zein unetan azaltzen den eta zein unetan duen eragin handiena esaten du.
- G. Gaixotasun sendaezin bat deskribatzen du.
- H. Gaixotasuna hartuz gero, zer egin behar den azaltzen du.
- I. Gaixotasuna sortzen duen parasitoari buruzko informazioa ematen du.
- J. Pertsona batek gaixotasuna edukitzeko zein faktorek eragiten duten azaltzen du.

Informazioa	0	1	2	3	4	5
Esaldia	I					

BIGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratiko *Arratsaldekoa* saioan Ander Izagirre idazleari egin dioten elkarrizketa entzungo duzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenbakia) bezala.

0. Ander Izagirrek
- a) betiko ogibideei buruzko liburu bat idatzi du.
 - b) "Cuidadores de mundos" izeneko liburua idatzi du.
 - c) zenbait ogibidetan berak egindako lana kontatzen du liburu batean.
6. Anderren liburua.
- a) Beste enkargu bat egiterakoan bururatu zitzaion liburua idaztea.
 - b) Enkarguz egindako erreportaje bilduma da liburua.
 - c) Enkarguz idatzi zuen liburua.
7. Xabier Cabezón eta Leitzaran bailara.
- a) Anderri gehiago interesatzen zitzaion Cabezón Leitzaran baino.
 - b) Cabezónek liburua idazteko konbentzitu zuen Ander.
 - c) Nahiz eta gaztea izan (32 urte), Cabezónek asko daki Leitzarani buruz.
8. Juanen historia. Juanek...
- a) eskulturak egiten ditu sustraiekin.
 - a) gurasoak sendatu zituen sustraiak erabiliz.
 - b) istripu larria izan zuen basoan.
9. Juanen agerpenen kontuak.
- a) Agerpenak Juanen obra baino gehiago azpimarratu ditu Anderrek.
 - b) Hasieran ez, baina orain Anderrek sinesten du agerpenen kontua.
 - c) Juanek dio hildako gurasoen aurpegiak ikusten dituela.
10. Luis Garcia eta buru-hezurren eskulturak.
- a) Heriotzari zion beldurratik hasi zen eskulturak egiten.
 - b) Hildakoen buru-hezurrekin egin zituen eskulturak.
 - c) Hilzorian egon zelako hasi zen eskulturak egiten.

Galdera	0	6	7	8	9	10
Erantzun egokia	B					

HIRUGARREN ENTZUNGAIA. (5 puntu)

Ariketa honetan Euskadi Irratian “Faktoria” saioan hondakinen bilketari buruz Usurbilgo alkateari egindako elkarrizketa entzungo duzu 2 aldiz.

Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenbakia) bezala.

0. Lehen eguneko balantzea.
- a) Harriturik gelditu dira herritarren erantzunarekin.
 - b) Kezkatuak zeuden herritarren erantzunarekin.
 - c) Pozik daude herritarren erantzunarekin.
11. Hondakinak etxez etxe bilduko dira.
- a) Bai, baina ongi erabili arte edukiontzi batzuk ere utziko dituzte.
 - b) Bai, eta kaleak edukiontzirik gabe geldituko dira.
 - c) Ez, beira oraindik kalean bilduko da.
12. Egunaren arabera hondakin mota bat edo beste jasoko da.
- a) Baina beti ere egunez.
 - b) Baina beti ere gauez.
 - c) Baina hondakinaren arabera gauez edo egunez.
13. Herritar batzuk kontra azaldu dira.
- a) Halere alkateak aurrera jarraituko du.
 - b) Horregatik alkatea horiekin bilduko da.
 - c) Horregatik alkateak aldaketa batzuk onartuko ditu.
14. Inguruko herriak Usurbilgo emaitzen zain gelditu dira.
- a) Bestela erraustegi bat jarriko dutelako.
 - b) Haien ere edukiontziak kendu nahi dituztelako.
 - c) Haien hondakinak ere Usurbilen birzikla litezkeelako.
15. Usurbilen inguruan erraustegirik ez eraikitzeke...
- a) birziklatze sistema hobea asmatu behar litzateke.
 - b) hondakin gutxiago sortu behar litzateke.
 - c) ondoko herriek elkarturik egon behar lukete.

Galdera	0	11	12	13	14	15
Erantzun egokia	C					